

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## TXAKALA TA KIRIKOLATZA

“Dana gura dauanak dana galtzen dau” diño antxiñako esaldiak eta ori da alegi onetako txakalari jazo jakona, Kirikolatz txikiaren maltzurkeriak azpiratu eban txakal artoa. Sarritan arrokeriak gauzak diran lez bagerik beste era batera ikusteko bidea zabaltzen dau.

Kirikolatzak eta txakalak basamortu aundi baten ikusi eben alkar eta ganbelu baten gorputzeko azurrak ikusi ebezan. Biontzak janaria naikoa ziran.

—Zoaz suaren bailla —esan eutson txakalak bere lagunari, laguna kanpotik zan artean berak ganbelu osoa jateko.

—Zeu zoaz —erantzun eutson kirikolatzak ondo ekialako bere laguna jatuna zala. Zuk nik baiño anka luzeagoak daukozuz, ariñeketarako ona zara eta dana egingo dozu beingo baten. Nik daukagun janaria zainduko dot.

Txakala buztanari eraginda eta ariñeketan joiala, bide luzeak nekatu bagerik egiteko gai da izan be, kirokolatzak zatitu eban ganbelua eta zugatz baten ondoan are-artean ezkutatu eban arin be arin, eta denpora gitxitan gorde eban ganbelua, buztana izan ezik. Ondo ezkutatu-ondoren, abar bat artu eta urratsak kendu ebazan. Gero buztana artu eta are-gaiñean ipiñi eban, ule batzuk agiri zirala. Bero ikaragarria egoan basamortu aretan.

Kirokolatza, izardi-aparretan eta arnasea artu-eziñik, etxundu egin zan buztanaren ondoan, bidea nondik joian aitzu bagerik. Txakala, illentia agin-artean ebala etorrela ikusi ebanean, jauzi bat egin eta buztana artu eban oiñak lurrean ebazala eta tiratu egiten ebalako antza emoten asi zan.

—Zer egiten dozu, barreragille orrek? —esan eban txakalak. Ez dot ikusten ganbelua! Non dago?

Piztia ez egoan ilda-esan eban kirikolatzak

—Ikusi dau guk erre egin gura genduala eta, zu joan ziñanean, are-artean zuloa egin eta ezkutatu egin zan. Eta nik, ain sendoa ez nazan lez, ezin galazo izan dausat ori egitea. Eta bera lurpean sartu da, baiña nik buztanetik elduta daukat eta ez da iñora joango.

—Kendu zaite ortik! Neuk egingo dot ori. Laster ikusiko dozu ganbelua zelan ateraten dodan.

—Astiro ori! —erantzun eban Kiriko´k— ez galdu baretasuna! Zenbat gura denpora daukagu!

Baiña txakalak ez eutson jaramonik egin. Artu eban agin-artean buztana, okertu eban lepoa eta aurrera egin eban. Sakakadea ain aundia izan zalako, bere buztanaren gaiñean jesarrita ikusi eban bere burua, ganbeluaren buztana agoan ebala.

—Zure indarrak galdu gaitu-esan eban kiriko´k, negarrez. Gabelua joan da lurpera eta ez dogu iñoz arrapauko. Alkar poztu gaitzezan bion artean buztana janda.

—Zuk ez, zuk ez dozu jango ezer be, keto orrek! —esan eban txakalak asarrez. Eta buztana artu eta joan zan zulo baten berak bakarrik jateko.

Orduan kirikolatzak atera eban lurretik gabelua eta astitsu jan eban iñoala: Olako gauzak jazoten jakez, jatunak eta norberekoiak diranai.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek